

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA
OBRAK JENDAURREAN ZABALDU BIDEZ NEGOZIAZIOZ
KONTRATATZEA

1. KONTRATUAREN GAIA

Kontratuaren gaia hau da: **Oiartzungo udal beilatokiaren eraikitze proiektua.**

Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera: 45215100.

Proiektuak Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatu Fondoaren arautzen duen urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu-legearen 2, 9 eta 10 artikuluek ezartzen dituzten baldintzak betetzen ditu.

2. KONTRATUAK BETEBEHARREKO PREMIA ADMINISTRATIBOAK

Plegu honi dagokion kontratuaren egikaritzearen bidez hurrengo beharra bete egiten da: Oiartzungo udal beilatokia eraikitzea.

3. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

a) Lizitaziorako oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa: 579.295,87 €.

b) Aurreko kopurutik, BEZari dagokio: 79.902,88 €.

4. URTEROKOEN BANAKETA

Kontratuaren aurrekontuari dagozkion kopuruak 2010eko urteroko bakarrean ordainduko dira.

5. FINANTZAZEA

Proiektua urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu-legeak arautzen duen Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatu Fondoarekin finantzatzen da.

6. KONTRATUAREN ERREJIMEN JURIDIKOA ETA IZAERA KONTRAKTUALA DUTEN DOKUMENTUAK

Tokiko korporazioen kontratuak arautzen dituzten xedapen orokorrez gain, honakoei egokitu behar da:

- Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatu Fondoa arautzen duen urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu-legea.
- Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea.
- Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua.
- Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1.098/2001 Erret Dekretua, 30/2007 Legea ezeztatzen ez duenean.
- Tokiko Kooperaziorako Estatuko Idazkaritzak 2009ko azaroaren 2an emandako ebazpena.

Plegu honez gain, hurrengoek kontratu izaera dute:

- Preskripzio teknikoen plegua.
- Planoak.
- Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorren arabeko proiektuaren memoria.
- Kontratazio organoak onetsitako lan-programa.
- Prezioen koadroa.
- Kontratuaren formalizazioa.

7. OBRAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea sei hilabetekoa izango da, zuinketa egiaztatzen denetik kontatzen hasita, eta obrak 2010eko abenduaren 31a baino lehen amaitu behar direlarik, edozein kasutan.

8.ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratua publizitate bidezko negoziazioz esleituko da 155 d) artikulua xedapenak betetzen dituelako eta lizitaziorako oinarritzko aurrekontuak, BEZ kanpo, 200.000 euroko kopurua gainditzen duelako, 161.2. artikuluekin adostasunean.

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu-legearen 17 artikulua arabera, Legearen 96 eta 128 artikuluetan ezarritako presazko prozedura jarraituko da.

9.LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEAREN GASTUAK

Esleipendunak lizitazioaren publizitatearen gastuak ordaindu beharko ditu.

10. ORDAINDU BEHARREKO GASTUAK UKO EDO ATZERA EGITEAGATIK

Lizitazaile bakoitzari egindako gastuengatik ordainduko zaio.

11. KLASIFIKAZIOA

Lizitatuzaileek hurrengo talde, azpitalde eta kategorietan klasifikatuak daudela ziurtatu beharko dute:

Taldea: I	Azpitaldea: 1	Kategoria: D
Taldea: C	Azpitaldea: 2,3,6 eta 9	Kategoria: D
Taldea: A	Azpitaldea: 1 eta 2	Kategoria: D
Taldea: E	Azpitaldea: 1	Kategoria: D

12. BERMEAK

-Behin-behinekoa: lizitatuzaileek lizitazioarako oinarrizko aurrekontuaren %3ko bermea, BEZ kanpo, jarri beharko dute.

-Behin-betikoa: Kontratuaren behin-behineko esleipendunak, bere gain hartutako beharrak beteko dituela bermatzeko, esleipenaren %5eko bermea jarri behar du, Bez kanpo.

13. PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEKO ERA

Parte hartu nahi duten enpresariak iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egutegiko zazpi egunetan eskatu beharko dute, benekotasun baldintzak bete behar dituen hurrengo dokumentazioa atxiki behar duen eskaera baten bidez:

- 1) Pertsonalitate juridikoa ziurtatzen duten dokumentuak:** banakako enpresariak NANaren zinezko kopia; pertsona juridikoak diren enpresariak eskritura edo entitatearen eratzea jasotzen duten dokumentuak eta Merkataritza Erregistroan edo dagokion beste batean inskribaturiko estatutuak.

Espainiarrak ez diren Europar Erkidegoko enpresarien jarduteko gaitasuna ziurtatuko dute, ezarrita dauden estatuaren legeriaren arabera dagokion erregistroko inskripzioarekin, edo zinpeko aitortpen baten bidez, edota ziurtagiri bidez, araudi bidez ezartzen den eran, aplikagarri diren erkidegoarekin adostasunean.

Bestelako kanpoko enpresariak beren gaitasuna enpresak egoitza duen lurraldean datzan Misio Diplomatiko edo Bulego Kontsularraren agiriaren bidez frogatu beharko dute.

- 2) **Ordezkaritza ziurtatzen duten agiriak:** proposamena lizitatzailerik sinatu ezean, proposamena sinatzen duenaren alde emandako boterea aurkeztuko da ahaldun edo ahaldunen NANaren kopia batekin batera.
- 3) **Kontratatzeko debekurik ez izanaren ziurtagiria edo aitorpena,** eta horrekin batera indarrean dauden xedapenek ezarritako ogasun betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituen ziurtagiria, esleipenduna izango den enpresaria behin-betiko esleipena baino lehen ziurtatu behar dituen beharraz gain.
- 4) **Klasifikazioa ziurtatzen duten dokumentuak:** kontratistari klasifikazioa eskatzen zaionean enpresa lizitatzailerik plegu hauetan ezarritakoaren arabera klasifikatua dagoen ziurtagiria aurkeztuko du. Klasifikazioa lortzeko zain dauden enpresek, eskaera aurkeztu duten ziurtagiria aurkeztuko dute, eta eskatutako klasifikazioa lortu dutela egiaztatu beharko dute agirien akatsak edo hutsuneak zuzentzeko ezarritako den epean.

Klasifikazio falta ezin izango da bete kaudimena kanpoko baliabideen bidez integratuz.

- 5) **Atzerriko enpresei eskatu beharreko dokumentazio osagarria:** atzerriko enpresek, kontratua Espainian egikarrituko bada, kontratuarekin zuzenean edo zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako edozein alorreko epaitegi espainiarren jurisdikzioaren menpe jarriko diren aitorpena aurkeztu behar dute, lizitatzailerik legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko eginez.
- 6) **Egoitza.** Lizitatzailerik guztiek jakinarazpenentzako helbide bat adierazi beharko dute. Gainera, email helbide bat eta telefono eta fax zenbaki bat seinalatu dezakete osagarri gisa.

Parte-hartzeko eskaerak plegu honetako 13, 14 eta 15 klausulek ezarritako eran eta ezaugarriekin aurkeztuko dira.

14. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO GONBIDAPENA

Kontratazio organoak, parte hartzeko eskaerak aztertu eta kaudimen baldintzak betetzen direla erabaki eta gero, arbuiauak izan ez diren enpresa hautagaiak gonbidatuko ditu beren proposamena aurkeztu dezaten. Horretarako, aurkezteko lekua eta epea adieraziko zaie Legearen 151.2. eta 96.2 artikuluen arabera. Proposamenarekin bat proiektua eta obra deskribatzen duten dokumentuak aurkeztuko ditu.

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

Korrelatiboki zenbakitutako 3 kartazaletan aurkeztuko dira proposamenak.

A) **1. KARTAZALA.** Urriaren 30eko 30/2007 Legearen 130 artikulua arautzen duen

arabera, hurrengo benekotasun baldintzak:

- 1) **Aldirako Enpresa Batasuna eratzeko konpromezua:** enpresariak aldirako batasunean elkarturik aurkeztuko badira, esleipendunak izatekotan batasuna eratuko duten konpromisoa jasotzen duen , pribatua izan daitekeen agiria aurkeztuko dute. Agiri hau enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatu beharko dute eta bertan Administrazioerekiko harremanetarako AEBaren ordezkaria izendatuko dute, eta bakoitzari dagokion parte-hartzea adierazi.
- 2) **Behin- behineko bermearen ordaina** edo ordaindu den ziurtagiria.
- 3) **Plantilan ezinduak edo sozialki baztertuak daudenak dituzten enpresek** Legearen 6. xedapen osagarriak ematen duen lehentasuna aldarrikatu nahi badute, proposamena aurkezten duten momentuan plantila osatzen duten langileen % 2 ezinduak direla edo enpresa lizitazaileak sozialki baztertuak dauden gizarteratze eta lan sustapenaren alde lan egiten duen ziurtagiria, eta 6. xedapen osagarriak arautzen duen kontratazio konpromisoa frogatu beharko dute.

B) 2. KARTAZALA. Kontratuaren egikaritzearen prezioa adieraziko duen diru-proposamena aurkeztuko da, BEZ partida independente batean adieraziko delarik. Proposamena 1. anexoko ereduaren arabera aurkeztuko da.

Horretaz gain, formula baten bidez baloratu beharreko balorazio irizpideak jasotzen dituzten dokumentuak sartuko dira.

Gainera, kontratuaren egikaritzerako enpresak erabiliko dituen pertsonen kopurua jasotzen duen agiria aurkeztu behar da.

C) 3. KARTAZALA. Balorazio iritzi baten gai izango diren irizpideak baloratzeko beharrezkoak diren dokumentuak. Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 26. artikuluan ezarritakoaren arabera aurkeztuko dira.

Era berean, kartazal honetan obran lan egingo duten langileen guztizko kopurua zehaztu beharko dute.

Lizitaziorako dokumentazioa kartazal itxietan aurkeztuko da eta bertan lizitazioa aipatu eta lizitazaileak edo bere ordezkariak sinatuko du, eta izen eta abizen edo enpresaren arrazoi soziala adieraziko dira. Kartazal bakoitzaren barnean horri batean edukia aipatu eta zenbakituko da.

Kartazalak Oiartzungo Udalean, Done Eztebe Plaza 1, Oiartzun 20180, egun baliodunetako 8:00tatik 14:00tara aurkeztuko dira eta aurkezleari hartu izanaren agiria emango zaio non lizitazailearen eta kontratuaren izena eta aurkezpenaren data eta ordua zehaztuko diren emango zaio.

Era berean, posta bidez bidali ahal izango dira, kasu horretan, egun berean enpresariak kontratazio organoari igorpenaren kontu eman beharko dio télex, fax edo telegrama bidez. Xedapen hauek bete ezean ez da dokumentaziorik onartuko iragarkian ezarritako aurkezteko epearen data eta ordua igaro bada.

Epea igaro eta hamar egun igaro eta gero ez da dokumentaziorik onartuko.

16. PROPOSAMENAK

Interesatuaren eskaintzak plegu administratiboekin ados izan behar dute, eta beren aurkezpenak enpresariak pleguen klausula eta baldintza guztiak, proiektuarenak eta plegu teknikoarenak, erreserbarik gabe onartzen dituela suposatuko du.

Eskaintzak sekretuak izango dira eta izaera hori haiek publikoan ireki arte mantentzeko neurriak hartuko dira.

Lizitatzailerik bakoitzak eskaintza bakarra aurkeztu ahal izango du.

Ezingo du beste enpresari batekin AEB batean aurkeztu bakarka egin badu edo elkartasun batean baino gehiago agertzen bada.

17. NEGOZIATU DAITEZKEEN GAIAK. KONTRATUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.

Legearen 162. artikulua arabera burutu behar den negoziazioa hurrengo ezaugarri ekonomikoari eta teknikoari buruzkoa izango da: prezioa, burutzeko epea eta langabeziatik kontratatuko diren langileen kopurua.

Negoziatio amaituta, lizitatzailerik eskaintzak behin-betiko zehaztuak, kontratua hurrengo irizpideen arabera esleituko da:

1. Prezioa: gehienez **40 puntu** emango dira. Batez besteko eskaintzaren zenbatekoa kalkulatu da. Zenbateko hori %15 gutxitu (batez besteko eskaintza x 0,85) eta emaitzaren balio osoa baino eskaintza merkeagoak egongo balira, 0 puntu emango zaie kontzeptu horrengatik. Puntuaziorik altuena emango zaio batez besteko eskaintza %15 gutxitu ez dutenen arteko eskaintza merkeenari eta ez zaio punturik emango lizitazioaren prezioari egokitu zaion eskaintzari. Bi balio horien artean proportzionalki estrapolatu da gainerako eskaintzen puntuazioa.
2. Obrak burutzeko epea: gehienez **15 puntu** emango dira.
3. Kalitatea: gehienez **15 puntu** emango dira.

4. Enplegua sustatzea: irizpide honengatik gehienez **30 puntu** emango dira:
- a) Proiektuaren obra gauzatzeko 8 langile beharko direla zenbatesten da. Obran aritzeko langile gehiago hartuz gero, 5 puntu emango dira gehitutako langile bakoitzeko. Gehienez 10 puntu lor daitezke.
 - b) Obran lan egingo duten langile guztien artean langabeziatik kontratatu den langile bakoitzeko 4 puntu emango dira. Gehienez 20 puntu lor daitezke.

18. BARIANTEAK

Lizitatzailleek proiektuarekiko barianteak edo hobekuntzak ezingo dituzte aurkeztu.

19. KONFIDENTZIALITASUNA

Urriaren 30eko 30/2007 Legean zehaztutakoaz gain, lizitatzailleek aurkeztutako informazioaren zatiren bat sekretupeko izatea hauta dezakete, batez ere, sekretu tekniko eta komertzialei dagokienez. Kontratazio- organoek ezin izango dute informazio hori baimenik gabe zabaldu.

Era berean, enpresariak sekretupeko informazioaren izaera errespetatu beharko du. Betebehar hau bost urteren buruan mantenduko da.

20. PREZIOEN BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, Legearen 77.1. artikularekin eta 7. klausularekin bat.

21. DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

- a) Dokumentuak kalifikatu eta proposamenak aztertu eta baloratu Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 10 atalaren eta maiatzaren 8ko 81772009 errege Dekretuaren 2. artikularen arabera izendatuak izan diren Kontratazio Mahaia osatuko dutenek egingo dute.
- b) Legearen 130.1 artikulua arautzen duen dokumentazioaren kalifikazioa Kontratazio Mahaiak egingo du. Mahaiburuak kartazalak irekitzea aginduko du eta Idazkariak kartazal bakoitzak jasotzen dituen dokumentuak ziurtatuko ditu.

Kontratazio Mahaiak 1. kartazalean aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akats edo hutsak ahoz jakinaraziko dizkio interesatuari, horiek argitaratu arren, eta gehienez hiru egun balioduneko epea emango zaio zuzen ditzan Mahaia aurrean. Akta jasoko da.

- c) Dokumentazio berria aztertu eta akatsak edo hutsak zuzendu eta gero, Mahaiak Legearen 130. artikuluko baldintzak betetzen dituzten lizitatzailleak onartuko ditu eta onartzen ez dituenen zerrendaren eta arrazoien adierazpena egingo du.
- d) Horiek eginda, proposamenak publikoki irekiko dira seinalatuko den leku eta egunean eta, eta Araudi Orokorraren 83. artikuluan jasotako formalidadeak jarraitu egingo dira.

22. BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN-BETIKO ESLEIPENA

Kontratazio organoak ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du behin-behineko esleipena, bertan kontratuaren behin-betiko zehaztapenak ezarriko dira eta Legearen 42. eta 135.3 artikuluen arabera argitaratuko da.

Edozein kasutan, behin-behineko esleipena gehienez egutegiko hogeitun egunetan egingo da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita.

Behin-behineko esleipena behin-betikoa izan dadin, esleipendunak hurrengo dokumentazio aurkeztu beharko du:

- Kontratatzeke debekurik ez duen aitoren erantzulea, ogasun betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak eguneratuak dituen ziurtagiriekina batera.
- Behin-betiko bermearen ziurtagiria.
- Legearen 53.2 artikuluen arabera espresuki eskatzen bada, esleipendunak beharrezko baliabide material eta pertsonalak dituen agiria aurkeztu beharko du.

Behin-behineko esleipena behin-betiko esleipen izango da, ebazpen arrazoitu bidez, 13/2009 Errege Dekretu-legearen 17.1.b) artikulua ezartzen duen epea igaro eta hamar egun baliadunetan.

Lizitatzailleak AEB gisa aurkeztu badira, formalizazioaren eskritura kontratuaren formalizazioarekin bat aurkeztu beharko da.

Era berean, esleipendunari segururen bat kontratatzea eskatzekotan, poliza aurkeztu beharko du.

Behin-betiko esleipendunak obran okupatuko dituen langileen gutzitako kopurua adierazi beharko du eta enpresan integratuak direnak eta kontratazio berrikoak direnak zehaztu.

23. KONTRATUAREN ERANTZULEA, OBRA ZUZENDARIA ETA ORDEZKARIA

Kontratazio organoak erantzule bat izendatu ahalko du, 41. artikulua arautzen duen arabera.

Kontratazio organoak izendatzen duen obra zuzendaria, egikaritze zuzena eman dadin, zuzendaritza, ikuskatze, egiaztapen eta zaintze lanak egingo ditu. Obra zuzendariak kontratazio organoak izendatzen dituen laguntza izango du.

Kontratataren obra ordezkaria antzeko obretan eskarmentua duen tituludun teknikaria izan beharko du.

24. ZUINKETAREN ZIURTATZEA ETA LANEN PROGRAMA

Behin-betiko esleipena jakinarazten den egunetik eta gehienez hamabost egun baldiodunetan zuinketa egin eta akta altxatu beharko da.

Esleipendunak lan-programa bat aurkeztu beharko du kontratazio organoak onartu dezan. Kontratuaren formalizazioaren hurrengo egutegiko hamabost egunetan aurkeztu beharko da eta proposamenarekin aurkeztutakoa garatuko du, baina, kontratuko baldintzak aldatu gabe. Kontratazio organoak ebatzi eta kontratuari erantsiko zaio.

25. SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA

Behin-betiko esleipena jakinarazten denetik egutegiko hamabost egunetan kontratistak segurtasun eta osasun plana aurkeztuko du. Egutegiko bost egunetan epean erabakiko da bere onarpena.

Plana onartzeko gehienezko epea kontratuaren formalizazioa eta hilabete batekoa izango da. Kontratistak epeak beteko ez balitu eta horregatik baimena jasotzerakoan, obrak hasiko ez balira, kontratistak epeen inolako luzerarik ezingo du eskatu.

26. KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK

Kontratu honen xede diren obrak egiteko hartuko dituen langileak direla-eta, kontratistak lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta garbitasunaren arloan indarrean dauden lege-xedapen guztiak bete beharko ditu, eta Administrazioak ez du erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

27. KONTRATUA BETETZEN DEN BITARTEAN BESTEEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DUEN ERANTZUKIZUNA

Kontratistak izango du, obrak burutzen diren bitartean, eta bere ardurapeko langileen egintzen, hutsegiteen edo zabarkerien ondorioz, edo antolaketa eskasaren ondorioz,

edozein pertsonari, edozein jabetza edo zerbitzu publiko zein pribaturi, eragiten zaizkien kalte galeren erantzukizuna.

28. EPEAK

Esleipendunak nahitaezkoa du ezarritako guztizko epea eta ezartzen badira epe partzialak betetzea. Horiek zuinetaren frogapena sinatu eta hurrengo egunean hasiko dira.

29. ORDAINTZEA

Lanak hileroko ziurtagirien bitartez ordainduko da, Legeak 200 eta 215 artikuluetan eta Araudi Orokorrak 147. eta hurrengo artikuluetan esaten dutenez.

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu-legearen 17.5. artikulua dioenez, ziurtagiriak edo egikaritze totala edo partziala egiaztatzen duten agiriak aurkeztu eta hurrengo hogeita hamar egunetan ordainduko dio udalak kontratistari.

Kontratistak obrak ezarritakoa baino azkarrago egin ahal izango ditu egikaritze epeak bete nahian, beti ere, obra zuzendariak ezezkoa ematen ez badu. Baina, urte bakoitzean urterokoan ezarritakoa baino zenbateko handiagoa ezingo du jaso. Ziurtagiriek Araudi Orokorraren 152. artikulua datatik aurrera sortuko dituzte berandutze-interesak..

Kontratistak abonua jaso ahal izango ditu, Legearen 200.3. artikulua eta Araudi Orokorraren 155 eta 156. artikuluen arabera. Edozein kasutan, bermea betetzea eskatuko da, bai abal gisa, bai legeak baimendutako edozein modutan.

30. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK

Kontratuaren egikaritzearen baldintza izango da, urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu-legearen 17.2. artikulua dioenez, kontratistak kontratatu behar duen pertsona berria langabezia egoeran izatea. Edozein kasutan bakarrik hartuko dira kontuan Enplegu Zerbitzu Publikoetan inskribatuta dauden okupatu gabeko lan eskatzaileak eta egoera horretan dauden langile autonomoak. Era berean, lehentasuna emango zaie langabezia egoeran iraupen luzearekin daudenei, hau da, kontratazio data baino lehen Enplegu Zerbitzu Publikoetan enplegu eskatzaile bezala gutxienez 12 hilabete daramatzatenei.

Langile berrien kontratazioa Enplegu Zerbitzu Publikoen bitartez egingo da.

Kontratua amaitzerakoan enpresariak sortutako lanpostuak frogatu beharko dituzte, langilearen izena, abizenak, NAN zenbakia edo atzerritarren identifikazio zenbakia emanaz, eta kontratu-mota eta haren iraupena zehaztuz.

31. ZIGORRAK

Hurrengo kasuetan kontratistari zigorrak ezarriko zaizkio:

a) Egikaritzearen baldintza bereziak betetzen ez baditu :

- Orokorrean, esleipenaren zenbatekoaren %1. Kontratazio organoak ebazpen arrazoitu bidez larria edo oso larria dela baderitzo, %5 edo %10ekoa izango da. Betebeharrak egin gabe jarraitzea larritasuna baloratzeko erabili ahal izango da.

- Kontratistari eman beharreko guztizko ordainketatik edo ordainketa partzialetatik kenduz zigortuko da, Legearen 196.8. artikulua araberaren arabera.

Esleipendunak baldintzak betetzen dituela egikaritzearen edozein momentutan ziurtatu ahal izango dira, eta , edozein kasutan, obrak hartzerakoan.

Kontratzen den laneku berriaren % 50a langabezian ez bazeuden, arau-hauste oso larria dela iritziko da eta Legearen 102.2. artikuluan araututako ondorioak aplikatuko dira.

b) Gaizki betez gero:

- Hartze momentuan obrak jasotzeko moduan ez badaude, kontratistaren errua dela eta.
- Orokorrean, esleipenaren zenbatekoaren %1. Kontratazio organoak ebazpen arrazoitu bidez larria edo oso larria dela baderitzo, %5 edo %10ekoa izango da. Betebeharrak egin gabe jarraitzea larritasuna baloratzeko erabili ahal izango da.
- Zigorrez gain, Kontratistak akatsak konpondu beharko ditu.

c) Esleipenerako irizpideak ez betetzeagatik:

- Egikaritzen den bitartean edo hartzeko momentuan kontratistak bere eskaintzan jasotako konpromisoak bere errua dela eta bete ez baditu, batez ere, kontratatu beharreko laneku kopuruari dagozkienak.
- Dagokion esleipen irizpideari %25 puntu kendu ezkeren kontratistak lortutako puntuazioa dela eta bere proposamen hoberen baloratua izango ez zela erakustekotan ezarriko da zigorra.
- Orokorrean, esleipenaren zenbatekoaren %1. Kontratazio organoak ebazpen arrazoitu bidez larria edo oso larria dela baderitzo, %5 edo %10ekoa izango da. Betebeharrak egin gabe jarraitzea larritasuna baloratzeko erabili ahal izango da.

- d) Berandutzeagatik: Kontratastak bere errua dela eta berandutuko balitz, bai guztizko epe edo epe partzialei dagokienez, Legearen 196. artikulua emango da.

32. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratastak obra partzialki azpikontratu ahal izango du.

Azpikontratazioa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 210. eta 211. artikuluetan eta Eraikuntza Arloko Azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 legean jasotzen da.

Nolanahi ere, Errege Dekretu-Legearen 17.5. artikulua dioenez, Kontratastak azpikontratatuak faktura aurkezten dietenetik hogeita hamar egun naturaletako gehienezko epean ordaindu behar diete.

Kontratastak Legearen 210.2. artikuluan xedatutakoa edo azpikontrataziorako ezartzen den gehienezko muga berezia hausten baditu, 210.3. artikuluko zigorra ezarriko zaio:

- Guztizko ordainketatik edo ordainketa partzialetatik kenduko zaio edo bermea erabiliz, Legearen 196.8. artikulua arabera.
- Orokorrean, esleipenaren zenbatekoaren %1. Kontratazio organoak larria edo oso larria dela baderitzo, %5 edo %10ekoa izango da, ebazpen motibatu bidez. Betebeharrak egin gabe jarraitzea larritasuna baloratzeko erabili ahal izango da.

33. PUBLIZITATEA

Esleipendunaren lana izango da Lurralde Kooperaziorako Estatuaren Idazkaritzaren 2010eko urtarrilaren 20ko Ebazpenak ezartzen dituen ereduaren eta ezaugarrien arabera obraren kartel informatzailea ipintzea eta ordaintzea:

- Kartelak “Fondo Estatal para el empleo y la sostenibilidad local- Gobierno de España” esango du eta Udalaren izena, proiektuaren izena, aurrekontua, obra burutzeko epea eta kontratista adieraziko ditu.
- Kartela euskaraz idatziko da.
- Obra guztia egikaritzen den bitartean kartela mantentzea kontratistaren lana izango da.
- Ezingo da erabili inolako publizitaterik egiteko.

Toki Inbertsiorako Estatuak 2009an emandako dirulaguntzekin egin ziren obretan jarritako kartelak berrerabili ahal izango dira.

34. KONTRATUA BETETZEA

Kontratuaren hartzea Legearen 218. artikulua eta Araudi Orokorraren 163. eta hurrengo artikuluen arabera burutuko da kontratuaren hartzea.

Hartzerakoan kontratista hurrengo betebeharrak bete dituen ziurtatuko da:

- 1) Obren azken garbiketa, eta obrek hartutako eta ez hartutako tokiak hasierako egoerara bueltatu izana.
- 2) Kontratua akatsik gabe bete izana.
- 3) Esleipen irizpideak bete izana.
- 4) Egikaritze baldintzak bete izana.

Kontratua egikaritzen den heinean enpresa esleipendunak sortutako lanpostuen eta langile berrien alta eta baje berri emango dio kontratazio organoari dagokion aitorpenaren bidez.

35. KONTRATUA AMAITZEA

Legearen 205. artikulutik 208. artikulura xedatutakoaren arabera, eta obrei dagokienez 220 artikulutik 222 artikulura ezarritakoarekin eta Araudi Orokorraren 113 eta 172 artikuluek diotenarekin bat arautuko da.

Kontratua amaitzeko arrazoia izango da 31. klausulako 1. paragrafoan ezarritako egikaritze baldintza betetzen ez bada eta oso larria dela irizten bada.

Edozein kasutan, kontratuaren amaieraren errudun kontratista bada Legearen 204.8. artikulua aplikatuko da.

36. BERME- EPEA

Berme-epea urte batetako izango da eta obra hartzen denetik hasiko da.

Epe horretan Araudi Orokorraren 167. artikulua aplikatuko da kontratistaren betebeharre dagokienez eta Administrazioak obraren kontserbaziorako beharrezkoak diren lanak egiteko gaitasunari dagokionez.

Berme-epean zehar kontserbazioa dela eta gastuak badira, kontratistak ordaindu beharko ditu eta ezin izango du indemnitzaziorik eskatu. Ezinbestez gertatzen diren kalteak salbuespen, hauek Korporazioak jasango ditu eta. Baina kasu horretan, konponketa obrak kontratistak egin ditzan eskatu ahal izango du.

37. LIKIDAZIOA

Berme-epa igarotzerakoan kontratuaren likidazioa egingo da Araudi Orokorraren 179. artikulua araberan.

38. JURISDIKZIOA

Kontratua garatzen den bitartean sortutako koskak kontratazio organoak ebatziko ditu. Ebazten duten akordioek bide administratiboa amaitzen dute eta administrazioarekiko auzi-prozesuan kontra egin ahal izango dira.

Oiartzun, 2010eko otsailaren 25a

1. ERANSKINA

DIRU-PROPOSAMENA

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak
Helbidea
Posta kodea, NAN,, Telefonoa

Ordezkarriaren datuak (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak
Helbidea
Posta kodea, NAN edo IFK,, Telefonoa

kontratatzeko asmoz Oiartzungo Udalak dei egindako kontratazioan negoziazio bidez parte hartzeko gonbita jaso dudala eta, hona hemen nire

ADIERAZPENA

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala:
€, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Prezio horren %....., hau da,
€, BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da:

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)koaren(a)

Izenpea

